

GRADU AMAIERAKO LANAREN GIDALIBURUA

GIZARTE LANGINTZAKO GRADUA

Fakultateko GrAL-MAL Batzordean onartua 2024ko azaroan

Aurkibidea

1. **Irakasgaia deskribatzea eta testuinguruan kokatzea**
2. **Gaitasunak**
3. **Ikergaiak esleitzea, tutoretza prozesua eta GRALaren tutorearekiko harremana**
4. **GRALaren modalitateak, egitura eta alderdi formalak**
5. **Gradu amaierako lana epaimahaiaren aurrean ahoz defendatu aurretiko betekizunak eta prozesua**
6. **Ahozko aurkezpena epaimahaiaren aurrean**
7. **GRALaren ebaluazioa Eranskinak**

1. Irakasgaia deskribatzea eta testuinguruan kokatzea

Oro har, GRALa UPV/EHUK eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak horretarako dituzten arauen arabera egiten da, eta eskuartean duzun gidaliburu hau tresna bat da, lanaren garapen eta tutoretza prozesuan ikasleak orientatzeko.

Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Langintzako Graduaren Ikasketa Planean¹, GRALa nahitaezko irakasgai bat da, "Praktikak eta GRALa" moduluaren barnean dago, Graduaren 4. mailan egiten da, lauhilekoa da, eta 10 kredituko eskola orduak ditu, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak (ANECA) 2015eko urrian egiaztatutako txostenaren arabera.

GRALa gradu amaierako proiektuaren txostena egin, idatzi eta ahoz aurkeztean datza. GRALaren gaia librea da, baina zerikusia izan behar du beti gizarte langintzarekin. Hauetako bat izan daiteke:

- ✓ Gizarte arloko diagnosiak eta gizarte arloan esku hartzeko planak, programak edo proiektuak diseinatzea.
- ✓ Gizarte langintza barne hartzen duten gizarte ikerlanak.
- ✓ Jarduera profesionalari edo hura antolatzeko testuinguruei buruzko ikerlanak.
- ✓ Jardunbide profesional baten sistematizazioa.
- ✓ Diziplina honetan interesgarria den ikuspegi teoriko, eredu, metodologia edo teknikaren baten azterketa.

2. Gradu Amaierako Lanaren gaitasunak

GRALa ikasleak egindako proiektu, memoria edo azterlan bat da, honako gaitasun hauek lortzearen emaitza gisa:

- ✓ Nork bere lana behar bezala antolatzea eta nor bere lanaz arduratzea, lehenetsunak jarriz, erantzukizunak betez eta lan planaren eraginkortasuna modu jarraituan ebaluatuz.
- ✓ Baliabide bibliografiko, dokumental eta estatistikoak eta datu baseak ongi ezagutu eta erabiltzea.

¹ EHAA, 44. zk., 2011ko martxoaren 4koa.

- ✓ Bildutako informazioa aztertzea eta laburbiltzea, arrazonamendu kritikoaren ildoak garatzea, eta argudiatze bati eustea.
- ✓ Gizarte Langintzaren alorreko teoriak, ereduak, metodologiak, teknikak eta tresnak ezagutzea, sailkatzea eta alderatzea.
- ✓ Gizarte arloko ikerketa aplikatuari zein teorikoari buruzko txostenak egitea eta idaztea, Gizarte Langintzaren esparruan, hainbat ikerketa metodo eta teknika erabiliz.
- ✓ Ateratako ondorioen berri ematea ahoz eta idatziz, modu egituratuan eta kasuan kasuko entzuleentzat egokituta.

Era berean, GRALaren barruan jasota egongo dira ikastegiak Gizarte Langintzako Graduaren GRALari esleitutako zeharkako gaitasunak.

3. Ikergaiak esleitzea, tutoretza prozesua eta GRALaren tutorearekiko harremana

Gradu Amaierako Lanaren matrikula UPV/EHUK ikasturte bakoitzerako ezarritako epeen barruan egingo da.

Behin GRALaren matrikula eginda, ikasleek *GRALerako proposamena eta tutorea esleitzeko eskaera* (1. eranskina) beteko du eskatutako datu guztiak zehaztuz, eta GRALa zein hizkuntzatan egingo duen adieraziz. Gero, aplikazio informatikoaren bidez eta ikastegiak finkatu prozedurari jarraituz, tutorea esleituko da.

GRALa baino ez duten ikasleek, behin matrikula eginda, 1. eranskina bete beharko dute eta adierazitako prozedurari jarraitu.

GRALari esleitutako kreditu kopurua aintzat hartuta, tutoreak banakako 4 tutoretza ordu eskaini beharko dizkio ikasle bakoitzari. Ikasleak, ordu horiez gain, GRALaren tutoreak ikasturte bakoitzerako dauzkan tutoretza orduak erabili ahal izango ditu.

Jarraian datorren egutegia GRALa egiteko prozesurako orientagarria da, baita ikasle eta irakasleen arteko harremanetarako ere:

FASEAK GRADU AMAIERAKO LANA		Deialdia Otsaila	Deialdia Uztaila		Deialdia Iraila	
		Epe bakarra	1. epea	Epea zabaltze a	1. epea	Epea zabaltzea
Aurre tiko fasea	Izena ematea Tutorea esleitzea	Irail-urria	Iraila	Urtarrila	Iraila	Urtarrila
Hasiera	Lehenengo hartu emana tutorearekin Proiektuaren proposamen zehatza Kronograma/Pl anifikazioa	Urria	Urria/azaro a	Martxoa baino lehen	Urtarrila baino lehen	Martxoa baino lehen
Garapena	Dokumentazioaren berrikuspena GRALa egitea	Urtarrilera arte	Martxora arte	Apirilera arte	Maiatzera arte	Ekainera arte
Azken fasea	Azken zirriborroa ematea tutoreari	Urtarrila	Maiatza	Maiatza	Iraila	Iraila
GRALa² uzteko eta defendatzeko eskaera		Otsaila	Ekaina/uzt aila	Ekaina/uzt aila	Iraila/urria	Iraila/urria

3.1. Tutorearen eginkizunak

- Ikaslearen lanaren jarraipena egitea GRALa egiten dagoen bitartean.
- GRALak gizakien informazioa edo datuak erabiliz gero, lanaren arlo etikoa baloratzea izan ditzakeen inplikazioak ezartzeko, eta EHU/UPVko Etika Batzordeak lan akademikoetarako zehaztutako jarraibideei buruzko informazioa ematea ikasleari jarraibideok betetze aldera.
- Beste jarduera akademiko batzuetatik (practicuma eta abar) lortuta informazioa identifikatzea eta akademikoki justifikatzea, eta ikasleari laguntza ematea modu anonimoan egin dezan, eragindako pertsonak identifikatu gabe.
- Ikasleari aholku ematea iturri egokiak hautatzeko eta erreferentzia egokiak egiteko, bai lana idaztekoan, bai epaimahaiaren aurrean aurkeztekoan.

² GRALaren matrikula egiteko, defentsa eskatzeko eta gordailuan uzteko datak fakultatearen iragarki ohol ofizialean eta web orrian argitaratuko dira.

- Lan ebaluatzeko, 2. eranskina betetzea.
- GRALaren azken bertsioa balioztatzea ADDIn.
- 3. eranskina (Epaimahaiaren ebaluazioa) aurkeztea ikastegiko idazkaritzan.

4. GRALaren modalitateak, egitura eta alderdi formalak

Kontuan hartu behar dugu lanaren azken emaitzak Gizarte Langintzarekin erlazionatutako elementu teoriko, metodologiko, tekniko eta praktikoen analisia izan behar duela, Gizarte Zientzien testuinguruan.

Gaiak gizarte langintzari ekarpen zuzena egin ezean, GrALak azpiatal bat izango du aukeratutako gaiak gizarte langintzarekin duen lotura azaltzeko, eta bertan diziplinarako duen garrantzia eta/edo ekarpenak nabarmenduko dira.

GRAL guztiek *Printzipio eta balio demokratikoei eta GJHei buruzko hausnarketa* izeneko atal bat izango dute. Bertan, 200 hitz inguruko hausnarketa jaso behar da, printzipio eta balio demokratikoen eta Garapen Jasangarriaren Helburuen (GJH) argitan egindako lanari buruzkoa. Gogoeta horretan ikasleak aztertuko du GRALak zer nolako lotura duen balio horiekin eta GJHen lan esparruarekin, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoa planteatuko du. GRALa, gutxien dela, GJHetako batekin lotuko da, eta, ahal den neurrian, beste birekin. 17+1 GJHen barruan, hauek dira Gizarte Langintzako Graduarekin lotura estuena dutenak:

- 1. helburua: Pobrezia desagerraraztea
- 2. helburua: Goserik ez
- 3. helburua: Osasuna eta ongizatea
- 5. helburua: Genero berdintasuna
- 10. helburua: Desberdintasunak murriztea
- 11. helburua: Hiri eta komunitate jasangarriak
- 16. helburua: Bakea, justizia eta instituzio sendoak
- 17. helburua: Helburuak lortzeko aliantzak
- (17+1/18) helburua: Hizkuntza eta kultura guztiak aintzatestea eta beren presentzia bermatzea

Printzipio eta balio demokratikoei eta GJHei buruzko hausnarketa atalean honakoak landu ahal izango dira bereziki:

- - Giza eskubideak, oinarrizko eskubideak eta balio demokratikoak errespetatzea.
- - Genero berdintasuna eta tratu berdintasuna errespetatzea, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jatorria, nazionalitatea edo etnia, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo genero adierazpena, sexu ezaugarriak, gaixotasuna, egoera sozioekonomikoa, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial.
- Irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioa errespetatzea.
- -Jasangarritasunaren eta klima aldaketaren tratamendua.

4.1. GRAL modalitateak

Egin daitezkeen GRAL modalitateak aintzat hartuta (Ikasketen Gidaliburu honen 1. puntua), lanaren egitura (orientagarria) hauetakoren bat izan daiteke:

- **Gizarte ikerketako GRALa:**
 - Azala
 - Aurkibidea (zenbakitua)
 - Laburpena eta gako hitzak
 - Printzipio eta balio demokratikoei eta GJHei buruzko hausnarketa
 - Sarrera
 - Hipotesiak eta helburuak
 - Esparru teorikoa
 - Metodologia
 - Analisia
 - Ondorioak (eta proposamenak)
 - Bibliografia
 - Eranskinak (aukerakoa).
- **Gizarte diagnostikoan oinarritutako GRALa**
 - Azala
 - Aurkibidea (zenbakitua)
 - Laburpena eta gako hitzak
 - Printzipio eta balio demokratikoei eta GJHei buruzko hausnarketa
 - Sarrera
 - Esparru teorikoa
 - Errealitatearen ezagutza
 - Lurraldea
 - Herria
 - Baliabideak
 - Diagnostiko metodologia
 - Errealitatearen analisia
 - Beharren analisia (kausak eta ondorioak)
 - Eskaeraren analisia (esplizitua eta implizitua)
 - Indarguneen eta ahulguneen, aukeren eta mehatxuen analisia.
 - Pronostikoa
 - Lehentasunen analisia
 - Jarduteko estrategiak
 - Ondorioak
 - Bibliografia
 - Eranskinak (aukerakoa).
- **Gizarte proiektuen diseinuan oinarritutako GRALa**
 - Azala
 - Aurkibidea (zenbakitua)
 - Laburpena eta gako hitzak
 - Printzipio eta balio demokratikoei eta GJHei buruzko hausnarketa
 - Azalpen laburra
 - Erakunde sustatzailea (halakorik balego)
 - Justifikazioa (diagnostiko batean oinarrituta)
 - Oinarri teorikoa eta lege oinarria
 - Helburuak
 - Jarduerak eta metodologia

Herria
Kokagunea
Tenporalizazioa
Baliabideak
Aurrekontua eta finantzaketa iturriak
Bideragarritasuna eta jasagarritasuna
Ebaluazioaren diseinua
Bibliografia
Eranskinak (fitxa dinamikoak, ebaluazio galdetegiak, etab.)

➤ **Lan eta komunitate esperientzien sistematizazioan oinarritutako GRALa**

Azala
Aurkibidea (zenbakitua)
Laburpena eta gako hitzak
Printzipio eta balio demokratikoei eta GJHei buruzko hausnarketa
Sarrera
Esparru teorikoa
Sistematizazio ikuspegia
Sistematizatu beharreko esperientzia, testuinguruan kokatzea
Sistematizazio ardatzak mugatzea
Parte hartzaileak eta metodologia
Esperientziaren sistematizazioa
 Abiapuntua
 Hasierako galderak
 Bizitako prozesua berreskuratzea
 Sakoneko hausnarketa
 Helmuga puntuak
 Ezagutzaren elaborazioa
Emaitzen komunikazioa
Bibliografia
Eranskinak (aukerakoa).

4.2. Alderdi formalak

- Lanak itxura zuzena eta estetikoa eduki behar du, honako hauek kontuan izanik: lanaren formatu orokorra, orrialdeen numerazioa, letra mota, lerroarte, taulak, irudiak eta grafikoak, etab.
- Unibertsitatearen irudia erabiliko da eta EHUren tipografia (EHUSans gaztelaniaz, eta EHUSerif euskaraz)
- Letra tamaina: 12 puntu
- Testua. bi aldeetan justifikatua. Lerroarte: 1'5. Marjinak: 2,5 cm goian eta behean; 3 cm ezkerraldean eta eskuinaldean.
- Orri zenbakitua: orrialde zenbakia adierazi behar da beheko eskuinaldeko angeluan. "Sarrera"tik aurrera.
- Luzera: 60 orrialde gehienez (eranskinak zenbatu gabe).
- Azala: aipatuko dira: titulua (Gizarte Langintza), irakasgaia (Gradu Amaierako Lana), fakultatea eta unibertsitatea (logoa sartu), lanaren izenburua, GRALeko tutorearen izen-abizenak eta ikaslearen izen-abizenak, baita aurkezpen eta deialdiaren data ere.

- Hizkuntza eta estiloa:

- o hizkuntza egokia eta teknikoa erabili behar da; ondo idatzita egon behar du. Hizkuntza ez-sexista.
- o Lana kalifikatzerakoan oso kontutan hartuko da hizkuntzaren zuzentasuna, hau da: egokitasuna, hiztegia, zehaztasuna, koherentzia eta gramatika. Lana bukatutzat eman aurretik zuzentzaile ortografikoa erabili beharko da.
- o Plagiotzat hartuko da itzulpen tresnak erabiltzea, baldin eta itzulpena zuzendu eta berrikusi gabe txertatzen bada GRAL lanean. Horrelakoetan, Suspentso kalifikazioa jarriko da.

- Erreferentzia bibliografikoak:

Testuaren amaieran, ez orri oinean, eta alfabetikoki ordenatuta emango dira. APA 7 arauak erabiltzea gomendatzen da. Hemen oinarrizko batzuk laburbiltzen dira³, eta izen propioak gehitu zaizkie, generoa ikusgai jartzeko asmoz:

Liburuak:

Roldán, Elena, & García, Teresa (2006). *Políticas de servicios sociales*. Madril: Síntesis.

Liburuen kapituluak:

León, Margarita & Salido, Olga (2013). Las políticas de protección a las familias en perspectiva comparada: divergencias nacionales frente a desafíos compartidos. In Eloísa del Pino & M^a José Rubio (Arg.), *Los estados de bienestar en la encrucijada. Políticas sociales en perspectiva comparada* (291-306 or.). Madril: Tecnos.

Aldizkarietako artikuluak:

Fernández, Sergio (2010). Prácticas y profesión en Trabajo Social: relaciones académicas y proceso metodológico. *Cuadernos de Trabajo Social*, 23, 229-246.

Interneten eskura daitezkeen dokumentuak:

Anderson, Kate (2012ko ekainaren 3). The challenge of the practice-management. *Social Work Now*, 51. *Helbide honetatik hartua*: www.cyf.govt.nz/social-work-now-2012.pdf

Legeria:

39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Mendekotasunean dauden pertsonen Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeari buruzkoa. BOE 299 zk., 2006ko abenduaren 15, 44142-44156 or.

4.3. Ondorio etikoak dituzten GRALak eta UPV/EHUko GIEBren jarraibideak betetzea.

³ Beste era bateko erreferentziatarako, kontsultatu honako dokumentu hau: <https://addi.ehu.es/handle/10810/42398>

Edozein ikerketa lanetan beharrezkoa da kalteberatzat jotzen diren pertsonak babestea. Beraz, ikaslearen GRALak pertsona horien datu pertsonalak biltzea badakar, ebaluatu beharreko lana UPV/EHUko Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordera bidali beharko da, eta tutoreak gainbegiratu beharko du prozesua.

Pertsona kalteberatzat hartzen dira modu absolutuan edo erlatiboan beren interesak babestu ezin dituztenak. Honako egoerak izan daiteke horren adibide:

- Autonomia edo autokudeaketa mugatuta duten pertsonak, izan barneko faktoreengatik edo kanpoko faktoreengatik.
- Berriazko neurriak hartu behar direnean ikerketa proiektuetan berdintasunez eta diskriminaziorik gabe parte har dezaten.

Hala dagokionean, Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentu osagarriak aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Tutoreak gainbegiraturako du hori guztia.

Bestalde, GRALaren metodologia dela eta informatzaileek parte-hartu behar badute, ikasleak baimen informatuaren dokumentua erabiliko du (7. eranskina).

5. Gradu amaierako lana epaimahaiaren aurrean ahoz defendatu aurretiko betekizunak eta prozesua

- ✓ Izen ematea eta tutorea eskatzea, ikastegiak adierazitako eran eta epean.
- ✓ GRAL egitea eta tutoreak zuzentzea, zehaztutako egutegiaren arabera.
- ✓ GRALaren defendatzeko eskera eta gordailuan uztea, onartutako egutegiaren arabera. Honako urrats hauek egin behar dira eskaera egiteko:
 - GrALa defendatseko eskaera egitea GAUREn.
 - Tutoreak GAUREn eskaera baliozkotzen duenean, ikasleak mezu bat jasoko du ADDI tresnatik; ondoren, ikasleak GRALaren azken bertsioa igo beharko du, ADDIra sartzeko LDAP erabiltzailea eta pasahitza erabilita.
 - Azkenik, gordailuan uzteko eskaera (5. eranskina) posta elektronikoz bidali behar da ikastegiko idazkaritzara (ar-lh-gl.zentru-idaz@ehu.eus:).

Ikasleak ez badu lana gordailuan uzteko prozedura betetzen eta ez badu onartutako egutegia betetzen, "aurkezteke" kalifikazioa emango zaio eta deialdia galduko du.

- ✓ GRALaren ebaluazioa. Tutoreak 2. eranskina beteko du eta GAURera igoko du GAUR aplikaziotik mezu elektronikoa jasotzen duenean jakinaraziz ikasleka defentsarako eskaria egin duela; era berean, GRALaren ebaluazio txostena bidaliko dio epaimahaiko idazkariari.
- ✓ Tutoreak GRALaren azken bertsioa baliozkotzea ADDIn.
- ✓ Gradu Amaierako Lanaren ahozko defentsa egiteko eguna eta ordua eta epaimahaiko kideen izen-abizenak deialdi bakoitzerako eskari guztiak aurkeztu ondoren emango dira argitara, baina betiere proba egingo den data baino bost

egun lehenago, gutxienez. Edozelan ere, GRALaren defentsa ikastegiak ikasturte bakoitzerako onartutako egutegiari jarraikiz egingo da, egutegi horretan zehaztutako epearen barruan (egutegia ikastegiaren web gunean argitaratzen da).

6. GRALaren ebaluazioa

Lana ebaluatzeko, epaimahaiak 4. eranskinean jasotako txantiloia erabiliko du, bertan adierazitako arloen arabera.

Ehunekoei dagokionez, lan idatzia nota osoaren % 80 izango da, eta, gainontzeko % 20, ahozko aurkezpena. Epaimahaiak jarriko du notaren % 100, baina kontuan hartu ahal izango du, lagungarri, tutoreak lanari emandako kalifikazio kualitatiboa. Tutoreak epaimahaiko idazkariari helaraziko dio.

Ahozko defentsa egin ondoren, GRALaren epaimahaiko idazkariak 3. eranskina (Epaimahaiaren ebaluazioa) eramango du ikastegiko idazkaritzara.

6.1. Ahozko aurkezpena epaimahaiaren aurrean

GRALa ahoz aurkezteko 15 minutu izango dira gehienez. Tarte horretan, honako hauek azalduko dira: GRALaren motibazioa eta justifikazioa, lanaren helburuak, erabilitako metodologia, edukiaren sintesia eta ondorio orokorrak.

Ahozko aurkezpena amaitzean, epaimahaiak 15 minutu izango ditu gehienez ikasleari erantzuteko. Ikasleak epaimahaiko kideen galderei, argibide eskeei, iruzkinei eta iradokizunei erantzungo die.

7. UPV/EHUko ADDI gordailuan argitaratzea

Lanak Bikain edo Ohorezko matrikula lortuz gero, UPV/EHUren ADDI gordailuan argitaratu ahal izango da. Horretarako proposatutako lana egin duen ikasleak 6. eranskina bete beharko du eta ikastegiko idazkaritzara bidali lan argitaratzeko prozedurari hasiera emateko.

1. eranskina.- GRAL PROPOSAMENA ETA TUTOREA ESKATZEA

(2.8.3 GRAL proiektua erregistratzea)

IKASLEAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK ▪
NANa ▪
TELEFONOA: ▪
E-MAILA: ▪

AURREKO DEIALDIETAN IZENDATUTAKO TUTOREA (halakorik balego)

IZEN-ABIZENAK

TUTOREA ESLEITZEKO ESKAERA		
SEI IRAKASLEREN IZEN-ABIZENAK (PREFERENTZIA ORDENEAN)		
GRADU AMAIERAKO LANERAKO PROPOSAMENA (Gehienez: 1500 karaktere, tarterik gabe)		
GRALaren gaia		
Deskribapen laburra eta helburuak		
Modalitatea		
Oinarrizko bibliografia (6-8 erreferentzia)		
Hizkuntza (garapena eta defentsa)	Gaztelania	Euskara

2. eranskina.- GRALaren TUTOREAREN EBALUAZIOA⁴ (2.8.4.)

IKASLEAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK

▪

E-MAILA

▪

GRALaren TUTOREA

IZEN-ABIZENAK

SINADURA

TUTOREAREN EBALUAZIOA

Ebaluazio kualitatiboa				
	Ez gai	Nahikoa	Oso Ongi	Bikain
Aculodi, Empar Pineda edo Ohorezko Sarirako proposamena				

⁴ Ikastegiko idazkaritzan aurkeztu

3. eranskina. GRALaren EPAIMAHAIAREN EBALUAZIOA⁵ (2.8.5.)

IKASLEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

IZEN-ABIZENAK

E-MAILA

TUTOREA

IZEN-ABIZENAK

EPAIMAHAIKO KIDEAK

EPAIMAHAIBURUA

MAHAIKIDEA

IDAZKARIA

Sinadurak

Mahaiburua

Mahaikidea

Idazkaria

DEIALDIA

Otsaila

Uztaila

Iraila

EPAIMAHAIAREN NOTA

Epaimahaiaren gomendioak suspendituz gero edo proposamenak (ohorezko matrikula, saria, etab.)

Proposatua honetarako	Aculodi Saria	Aculodi edo Empar Pineda sariak

⁵ Ikastegiko idazkaritzan aurkeztu.

4. eranskina- IDATZIZKO LANA EBALUATZEKO TXANTILIOIA

EBALUATU BEHARREKO ALDERDIAK			PUNTUAZIOA Otik 1era
AUTONOMIA ETA PLAN GINTZA	AUTONOMIA*	Ikerketa modu autonomoan diseinatzen eta abiarazten du, eta berea izan da ekimena prozesuaren zatirik handienean. Laguntza material propioak prestatzen ditu bere lana antolatzeko (analisi fitzak, dokumentuak artxibatzea eta sailkatzea, erregistroak, etab.)	
	PLANGINTZA*	Ikaskuntza jarduerak egiteko beharrezkoak diren lanak identifikatzen eta denboran antolatzen ditu, ezarritako epeak beteta.	
LAN PROZEDURAK	HELBURUAK OSATZEKO LANA	Helburuak ongi definituta daude, eta lanaren osotasuna hartzen dute kontuan.	
	DOKUMENTAZIOAREN BERRIKUSPENA	Ongi eta modu kritikoan aukeratzen eta erabiltzen du gaiari buruzko literatura, eta koherentziaz erlazionatzen du ezarritako helburuekin. Informazio iturriak askotarikoak eta zientifikoak dira.	
	ESPARRU TEORIKOA	Egitura eta atalak koherenteak dira; lana osorik biltzen dute. Ideiak ordena logikoan aurkezten ditu, eta ez dago gabezia nabarmenik.	
	METODOLOGIAREN APLIKAZIOA ETA LANDA LANA	Proiekturako metodologia eta ikerketa teknika egokienak aplikatzen ditu, lanean planteatutako helburuak eta hipotesiak landuz.	
AZKEN TXOSTENA	ALDERDI FORMALAK	Zuzentasun ortografiko, sintaktiko eta gramatikalez idazten du, eta zuzen erabiltzen du hizkuntza espezializatua.	
		Aipu eta erreferentzia bibliografikoak zuzen eta modu homogeneoan erabiltzen ditu.	
	EDUKIAK	Lanbidearen printzipio etikoen arabera egiten du lan, eta genero ikuspegia barneratzen du. Ondorio egokiak ateratzen ditu, lanaren helburuetara egokituta, eta horien gaineko gogoetak egiten ditu, gizarte langintzaren printzipioak oinarri hartuta. Landutako gaiak ekarpena egiteko dio Gizarte Langintzaren diziplinari.	
Puntuazioa, guztira:			

*Epaimahaiak kontuan izango ditu alderdi hauek oinarri hartuta tutorearen txostena

AHOZKO AURKEZPENAREN EBALUAZIO TXANTILIOIA

EBALUATU BEHARREKO ALDERDIAK		PUNTUAZIOA
		Otik 1era
AURKEZPENAREN ANTOLAKETA OROKORRA	EZARRITAKO DENBORARA EGOKITZEA	Azalpena ezarritako denborara egokitu da, eta hura errespetatu du.
	ORDENA ETA KOHERENTZIA	Gaiaren sarrera zuzen egin du, haren egokitasuna eta interesa justifikatuz. Azalpenak diskurtso koherentearen egitura logikoari eta hariari jarraitu dio, epaimahaiko kideen atentzioa une oro bereganatuz.
	BALIABIDEAK	Ikasleak aurkezpen egokia egin du, haren diseinu sortzaile batean oinarrituta.
AURKEZPENAREN EDUKIA	INFORMAZIOA AUKERATZEA ETA HORREN GARRANTZIA	Aukeratutako informazioa esanguratsua da, planteatutako helburuak aurkezteari begira. Teoriak, ereduak eta metodologiak ezagutzen, sailkatzen eta kontrastatzen ditu. Gizarte langintzarekin lotura ezartzen du eta arlo horretako analisiari dagozkion berariazko ikuspuntuak ezartzen ditu.
	INFORMAZIOAREN GARRANTZIA	Lanak gizarte langintzarako garrantzitsua den gai bat planteatzen du, eta diziplina horren analisiari dagozkion ikuspegiak erabiltzen ditu.
	METODOLOGIA	Proiekturako metodologia eta ikerketa teknika egokienak deskribatzen eta aplikatzen ditu, lanean planteatutako helburuak landuz.
	ONDORIOAK	Ikasleak gaia sakon ezagutzen duela erakutsi du, kalitatezko analisi enpiriko bat eginez eta planteatutako helburuei lotutako ondorio propioak landuz.
	PROPOSAMENAK	Ikertzeko eta lan egiteko planteamenduak egin ditu, emaitza gisa.
	ARRAZOITZETZKO GAITASUNA	Ikasleak erakutsi du gaia sakon ezagutzen duela eta, besteak beste, arlo teorikoan eta metodologian hartutako erabakiak arrazoitzeko eta defendatzeko gaitasuna erakutsi du.
		Puntuazioa, guztira:

*Epaimahaiak kontuan izango ditu alderdi hauek oinarri hartuta tutorearen txostena

5 ERANSKINA.- GRALa GORDAILUAN UZTEKO ESKAERA

IKASLEAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK

NANa

TELEFONO ZKIA.

E-MAIL

GRALaren TUTOREA:

IZEN-ABIZENAK

GRALaren IZENBURUA

GRALaren GAKO HITZAK
(5 gehienez)

GRALaren LABURPENA

Lotura dauka Practicumarekin

BAI

EZ

Deialdia

Urtarrila

Uztaila

Iraila

GRADU AMAIERAKO LANA ERABILTZEKO BAIMENA ARTXIBOA UPV/EHUren LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA

Baimena ematen diet arloan interesa dutenei nire Gradu Amaierako Lana erabiltzeko, betiere, lanaren egilea errespetatuz eta, erabiliz gero, aipamen bibliografikoetan jasota utzita lan hau erabili dela.

BAI

EZ

..... (tokia) 20... (a)(e)ko(a)ren

Iz.: _____

6. eranskina: BAIMENA LAN AKADEMIKOAK ZABALTZEKO ADDI - UPV/EHUren ERAKUNDE GORDAILUAREN BIDEZ

Nik, jaunak/andreak, NAN zenbakidunak, baimena ez eskusiboa ematen diot Euskal Herriko Unibertsitateari ondorengo lana erakundearen gordailuan gorde eta gordailuaren bidez jendaurrean jartzeko.0}

Izenburua	
Ikaslea	
Zuzendaria	
Titulazioa:	

Adierazi zein lan mota den:

Gradu Amaierako Lana - GRALa

Posta elektronikoz bidalitako mezu honen bidez, baimena ematen diot ADDiri:

1. Nik egindako lan akademikoari sarbide elektronikoa emateko baimena, ADDIra igota edo UPV/EHUren gordailu digital horren ordeko plataforma erabilia.
2. Lana teknikoki egokitzeko baimena, beharrezkoa izanez gero erabiltzaileen eskura jartzeko.
3. Baimena ematen diot, halaber, nire lana modu honetara zabal dezan: **[markatu aukeretako bat BESTERIK EZ]**

- (...) "**Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin**" CC lizentziaren bidez
[lanaren erreprodukzioa, hedapena eta zabalkunde publikoa egiteko aukera ematen du, baita lan eratorriak sortzekoa ere (itzulpenak eta abar)]

- () "Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe" CC lizentziaren bidez
[lanaren erreprodukzioa, hedapena eta zabalkunde publikoa egiteko aukera ematen du, baina ez lan eratorriak sortzekoa (itzulpenak eta abar)]

- (...) CC lizentzia ezarri gabe
[lana erabiltzeko baldintzak ondorengo agirian zehaztutakoak dira: la ley de propiedad intelectual]

Baimena eman arren egile eskubideak ez dira lagatzen modu eksklusiboan, eta ohikoak diren era guztietan erabili ahal izango da lana.

Baimena bost urterako izango da hasiera batean, baina modu automatikoan luzatuko da bost urterik bost urtera, baldin eta lanaren egileak ez badu adierazten beren beregi ezeztatu egin nahi duela.

Aitortzen dut neu naizela dokumentu honetan aipatzen den lanaren egile eskubideen jabea eta aitortzen dut, era berean, lortu dudala beharrezkoa den baimena neuk egin ez ditudan lanak (argazkiak, irudiak eta abar) ager daitezen bertan.

Aurreko guztiarekin bat natorrela adierazteko, baimen hau sinatu dut aipatutako lekuan eta datan.

..... (tokia), 20 (e)ko(a)ren(a)

Iz.:

7. eranskina. BAIMEN INFORMATUAREN DOKUMENTUA.

BAIMEN INFORMATUA

Nik, jaunak/andreak, adierazten dut azaldu dizkidatela jaunak/andreak, Euskal Herriko Unibertsitateko/Universidad del País Vasco (UPV/EHUko) Gizarte Langintzako ikasleak, egingo duen lanaren ikerketa helburuak.

Azaldu dizkidate beteko den prozeduraren nondik norakoak, baimena ematen dut neure borondatez, askatasunez eta jakitun naizela. Adierazten dut eskubidea dudala aipatutako prozedura nik nahi dudanean geldiarazteko, eteteko edo bertan behera uzteko.

Parte hartzaileen sinadurak:	Ikaslearen sinadura:
------------------------------	----------------------

_____ (tokia), 202_ (e)ko _____ (a)ren ____